

Hurrei irakurtzen ematea, jaten ematea bezain garrantzitsua

Galtzagorrik sustatutako 'Bularretik mintzora' kanpaina eskola guztietara zabalduko da 2009. urtean

JUAN G. ANDRÉS. Donostia.

Galtzagorri elkarteak Bularretik mintzora izeneko ekimena abian jarri zuen iazko abenduan Tolosan. Lehen esperientzia horren ondoren, Iurreta, Ermua, Oñati eta Amurrión ere frogatuko dute berehala, eta datorren urtean Euskal Herriko edozein herriak parte hartzeko aukera izango du. Helburu nagusia honako hau da, irakurzaletasuna sustatzea 0 eta 6 urte bitarteko haurren artean. Horretarako, gurasoen eta hezitzaileen inplikazioa beharrezkoa da etxean, eskola eta liburutegian giro irakurle bat sortzeko bideak jorratzeko.

Kanpainaren tresnarik garrantzitsuena Bularretik mintzora CD liburua da. Galtzagorrik argitaratuta, sehaska kanta, hitz jolasak eta ipuinak biltzen ditu. Elkarteko Itziar Zubizarretak zuzendu, Elena Odriozolak ilustratu eta Aurélio Edler Copések musikatu du. Kantatzeko, kontatzeko, jolasteko eta esateko eredu garbiak edukiko dituzte haurrek diskoari esker, guraso eta irakasleek joko horiek ikasi eta haiekin ahots bizian erabiliko dituztelarik. Arantza Arzamendi Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen zuzendariaren esanetan, irakurketarekin "lotura afektiboa" sortzea da helburua, irakurzaletasuna sustatu behar delako "haurra jaio bezain pronto". Ildo berean, Itziar Zubizarretak aldarrikatu zuen "irakurtzen ematea, jaten ematea bezain garrantzitsua" dela. "Onuragarria da haurraren garapenerako, osasunerako eta afektibitateko", erantsi zuen. Besteak beste, liburuz beteriko 50 maleta osatu dira, liburutegitik etxeetara mailegu gisa eramateko. Hori gutxi balitz bezala, kanpainan parte hartzen duten eskoletako gela bakoitzak motxila bat izango du, astean behin haur batek hartu eta bere inguruko laguntzaz disfrutatu ahal izateko.